Kulturaren Euskal Behatokiaren estatistika eta azterketa bilduma
Colección de Estadísticas y Estudios Culturales del Observatorio Vasco de la Cultura

2 2008

ESTATISTIKA

# Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa

## Euskal Autonomia Erkidegoa

## 2007 · 2008

Comunidad Autónoma de Euskadi
Estadística de Hábitos, Prácticas y Consumo en Cultura

Euskal Autonomia Erkidegoa
Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari estatistika

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA · DEPARTAMENTO DE CULTURA

ISBN **978-84-457-2834-5**

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 12€

Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>.


| | |
|---|---|
| Argitalraldia: | 1.a 2008ko azaroa |
| Ale-kopura: | 1.000 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Kultura Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Diseinua eta maketazioa: | AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com |
| Inprimatzea: | Gráficas Aratz, Avda. Madrid, 19 - 20.111 - Donostia - Gipuzkoa |
| ISBN: | 978-84-457-2834-5 |
| Lege-gordailua: | SS-1589-2008 |

# Aurkibidea

**Aurkezpena** 5
**Hitzaurrea** 9
**Irudien Aurkibidea** 13

**1.** TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK 18
**2.** EAE-KO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK. EMAITZA NAGUSIAK 24
**3.** IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK 42
**4.** MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK 58
**5.** MUSIKA 66
**6.** IKUS-ENTZUNEZKOAK 84
**7.** ZINEMA 94
**8.** ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA 102
**9.** METODOLOGIA 112

## Aurkezpena

Miren Azkarate
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua

Aspaldidanik zegoen kultura-estatistika propioa izateko premia larria, Euskal Herriko kultura-espazioaren eremu soziopolitiko bakoitzeko zein Euskal Herri osoko kultura-eskaintzaren eta eskaeraren jarraipena egiten lagunduko lukeena.

Hori dela eta, Kulturaren Euskal Behatokia martxan jarri ondoren, hasierako lanetako bat gure Esparru Estatistikoa diseinatzea izan zen. Eremu horretan lan egiten duten nazioarteko zein estatu mailako erakundeak erabiltzen ari diren sailkapenak eta aldagaiak berriz interpretatu, eta gure inguruko berezitasunetara egokitu behar ziren. Esparru horrek lagunduko du kultura-jardueren (eskaintza), jarrera sozialen (eskaera, zentzu zabalean) eta zeharkako elementuen zein elementu partikularren aldagai orokorren eta sektorialen jarraipena egiten, horiek guztiek eratzen baitute eremu soziokultural baten kultura.

Hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Planak kultura-praktiken eta kontsumo-ohituren ikerketari ekiteko beharra nabarmendu zuen. Lehen ikerketa hori egina dago jada. Lan handi eta sakona egin ondoren, Behatokiak lehen 2007-2008 Kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoari buruzko inkesta-ren emaitzak aurkeztu ditu. Inkesta hori egiteko, lehen aldiz zehaztu dituzte kontzeptu-esparrua, inkesta-sistema —ondoren garatu eta ustiatzeko aukerarekin— zein emaitza esanguratsuen hautaketa.

Inkesta horrek EAE osoko kultura-ohituren, -praktiken, -kontsumoen eta itxaropenen irudi zehaztua eskaintzen die, lehen aldiz, kulturari

lotutako erakunde eta entitate guztiei, zein jendeari orokorrean. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko eremuetan, kultura-eskaintzari buruz -ondarea, arteak, bertoko ekoizpena, jaialdi edo ekitaldiak eta kultura eratzen duten zeharkako esparruak- egin diren jarraipen eta azterketen ondorio zuzena izan da. Lehenengo aurrerapena Kultura 07 urtekarian aurkeztu zen, eta Kultura 08 eta beste hainbat argitalpenetan izango du jarraipena; esaterako, argitalpen bizkorreko ekitaldien sei hileko edo urteko eskaintzan, edo Estatistiken eta Kultura ikerketen Bildumaren hurrengo zenbakietan.

Euskal Herriko kultura eskaeraren azterketa, bereziki bertoko kulturara eta euskarazko kontsumora lotutako alderdiena, Euskal Autonomia Erkidegoko lur-eremua baino harago doa. Ikerketa hau lau liburukitan jaso da, eta laguntzaile izan dira Kulturaren Euskal Behatokia -Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Sailaren menpekoa-, Euskal Kultur Erakundea -EKE- eta Eusko Ikaskuntza. Azken erakunde bi horiek Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikerketak sustatu dituzte, hurrenez hurren. Lankidetza horregatik izan ez balitz, ez litzateke lortu ahal izango aurkeztu den bezalako sakontasuneko panoramika. Horrela, lurralde guztietan zenbait item berdinak izanik, elementu homogeneoak gehitu eta barne alderaketak egin ahal izan dira.

Aldez aurreko ikerketa zabal eta dibertsifikatuari, ikertutako hiru lurralde-eremuetatik bakoitzeko argazki partzialei eta kultura-erabilpenen adierazle garrantzitsuenen hautaketa zorrotzari esker

lortu da Euskal Herriko eskaeraren ikuspegi kuantitatiboa izatea. Oinarri sendo horrek beste balorazio kualitatibo batzuk behar ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan, Iparraldean eta Nafarroan zein Euskal Herriko kultura-espazio osoan eraiki ahal izateko sektore bereko beste sinergia batzuk, politika osagarriak edo partekatuak, lankidetza puntualak edo sistematikoak eta garapen erabilgarriak.

**Miren Azkarate**

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua*

## Hitzaurrea



2008an ekin zion Kulturaren Euskal Behatokiak Kulturari buruzko estatistikak eta azterketak bildumari, kulturaren sektorearen gaineko ikerketa eta azterketa propioek (kualitatiboak zein kuantitatiboak) sortzen dituzten analisi eta emaitzak hedatzeko asmoz betiere.

Bildumako lehen argitalpenean *Euskal Herriko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008* lanaren emaitzak ageri. Herritarren ohitura kulturalak ezagutzea du xede inkestak, euskal kulturaren kontsumoari dagozkionak batik bat. Lau liburuki ditu: Euskal Autonomia Erkidegoari, Nafarroako Foru Erkidegoari, Iparralderi eta Euskal Herri osoari dagozkionak.

Jarduera estatistiko ofizial bihurtzea du xede azterketak, eta bost urtean behin egingo da, herritarren ohitura kulturalen bilakaera ikusteko. Eurostat-ek partaidetza kulturalaz finkatutako irizpideen arabera egiten da ikerketa; hartara, lehendik egindako antzeko beste batzuekin aldera daiteke.

Oinarrizko bi kontzeptu sakonago jorratzeko balio izan digu arketa estatistiko honek: batetik, ohitura kulturalak, hots, herritarren portaera produktu eta zerbitzu kultural batzuekiko; bestetik, jarduera kulturalak, hau da, denbora-epe jakin bateko kultura-kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea. Horrekin batera, jarduera edo zerbitzu kultural jakin batzuek zenbateko arreta edo gogobetetze-maila eragiten duten ere aztertu du ikerketak.

Euskal Autonomia Erkidegoko hamabost urtetik gorako 3.986 laguni egin zaie inkesta. Sexua, adina, hizkuntza-gaitasuna eta bizilekua hartu dira irizpidetzat populazio-multzoak kultura-ondasun eta -zerbitzuen kontsumoaren arabera bereizteko. Inkestak jaso duen datu-multzo handia eta haien interpretazio-aukera guztiak ikusirik, azterketa osagarriak

Bederatzi kapitulutan dago banatuta azterketako informazio aipagarriena. Lehenbizikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria-egitura, biztanleen hizkuntza-gaitasuna eta etxeetako kultura-ekipamendua hartzen ditu testuingurutzat.

Bigarren atalean, inkestako emaitza nagusiak jorratu ditugu: jarduera kulturalekiko interesa, biztanleen kultura-ohiturak eta kontsumoa, euskal produktuen kontsumoa, Interneten erabilera kulturari dagokionez, eta herritarren jarduera amateurrak. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidego eta Europako Batasuneko emaitzen arteko oinarrizko konparaketa bat ere badu.

Hurrengo ataletan, berriz, sektorekako azterketa espezifikoak daude, gai hauei buruzkoak: irakurketa eta liburutegiak, museoak eta arte-zentroak, musika, ikus-entzunezkoak, zinema eta, azkenik, arte eszenikoak eta bertsolaritza. Amaieran, aipamen metodologiko bat du argitalpenak, lanaren fitxa teknikoarekin.

Behatokiaren web gunean dituzue inkestaren emaitza xehatuak, laburpen honen osagarri. www.euskadi.net/kulturabehatokia

Kulturaren Euskal Behatokia
Gasteizen, 2008ko azaroan

# Irudien Aurkibidea

## 1.

**1. irudia.** 2007ko EAEko biztanleen piramidea, sexuaren eta adinaren arabera (%) 18
**2. irudia.** 2007ko EAEko biztanleak, Lurralde Historiakoaren arabera (%) 19
**3. irudia.** 2006ko EAEko biztanleak, hizkuntza-gaitasunaren arabera (%) 19
**4. irudia.** 2006ko EAEko biztanleak, hizkuntza-gaitasunaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 19
**5. irudia.** Pertsonak, etxeko ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren arabera (%) 20
**6. irudia.** Pertsonak, etxeko ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 20
**7. irudia.** Pertsonak, etxeko IKT-ekipamenduaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 21
**8. irudia.** Pertsonak, sare-konexio motaren arabera (%) 21
**9. irudia.** Liburuak eta CDak etxeetan (%) 21
**10. irudia.** Pertsonak, etxeko liburu- eta CD-kopuruaren arabera (%) 21

## 2.

**11. irudia.** Kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa) 24
**12. irudia.** Arabako kultura-jarduеretarako interesaren rankinga (batezbestekoa) 25
**13. irudia.** Bizkaiko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa) 25
**14. irudia.** Gipuzkoako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa) 25
**15. irudia.** Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%) 26
**16. irudia.** Pertsonak, Araban azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%) 27
**17. irudia.** Pertsonak, Bizkaian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%) 27
**18. irudia.** Pertsonak, Gipuzkoan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%) 27
**19. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%) 28
**20. irudia.** Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%) 28
**21. irudia.** Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%) 29
**22. irudia.** Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 29
**23. irudia.** Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 29
**24. irudia.** Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 30
**25. irudia.** Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 30
**26. irudia.** Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 30
**27. irudia.** Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 31
**28. irudia.** Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera 31
**29. irudia.** Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%) 31
**30. irudia.** Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%) 31
**31. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%) 32
**32. irudia.** Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 32
**33. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 33
**34. irudia.** Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 34
**35. irudia.** Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 35
**36. irudia.** Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, sexuaren, adinaren, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 35
**37. irudia.** Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%) 36
**38. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 36
**39. irudia.** Azken urtebeteko EAEko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%) 37
**40. irudia.** Azken urtebeteko Arabako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%) 37
**41. irudia.** Azken urtebeteko Bizkaiko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%) 37
**42. irudia.** Azken urtebeteko Gipuzkoako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%) 37
**43. irudia.** Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%) 38
**44. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%) 38
**45. irudia.** EAEko eta EUROPAko kultura-adierazleen alderaketa (%) 39

## 3.

**46. irudia.** Pertsonak, irakurketarako interes-mailaren arabera (%) 46
**47. irudia.** Irakurketarako interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 46

EAE

**48. irudia.** Irakurketarako interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 46
**49. irudia.** Irakurketarako interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 46
**50. irudia.** Irakurketarako interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 47
**51. irudia.** Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%) 47
**52. irudia.** Aisialdiko liburuak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren arabera eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 47
**53. irudia.** Irakurtzeko ohitura duten pertsonak, hilabetean irakurtzen duten liburu-kopuruaren arabera (%) 48
**54. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 48
**55. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta sexuaren arabera (%) 48
**56. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera (%) 48
**57. irudia.** Pertsonak, azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruaren arabera (%) 49
**58. irudia.** Pertsonak, liburuak erosteko lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 49
**59. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%) 49
**60. irudia.** Egunkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 50
**61. irudia.** Aldizkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 50
**62. irudia.** Egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, interes gehien eragiten dieten berrien arabera (erantzun ugari) (%) 51
**63. irudia.** Aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%) 51
**64. irudia.** Pertsona elebidunak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko nahiago duten hizkuntzaren arabera (%) 51
**65. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun ugari) (%) 51
**66. irudia.** Pertsonak, liburutegiek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%) 52
**67. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 52
**68. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 52
**69. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 52
**70. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 52
**71. irudia.** Pertsona elebidunak, liburutegietara/mediateketara joateko ohituraren arabera (%) 53
**72. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta tamainaren arabera (%) 53
**73. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%) 53
**74. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%) 54
**75. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 54
**76. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko hobetu behar direla uste duten Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 55
**77. irudia.** Pertsonak, liburutegiekin/mediatekekin duten gogobetetze-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 55


## 4.


**78. irudia.** Pertsonak, museoek eta arte-zentroek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%) 60
**79. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 60
**80. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 60
**81. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 60
**82. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 61
**83. irudia.** Pertsonak, museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohituraren arabera (%) 61
**84. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 61
**85. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 62
**86. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%) 62
**87. irudia.** Museoetara egindako bisitak, lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 62
**88. irudia.** Museoetara egindako bisitak, tipologiaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 63
**89. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, gogobetetze-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 63

## 5.


**90. irudia.** Pertsonak, musikak sortzen dien interes-mailaren arabera (%) 70
**91. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 70
**92. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 70
**93. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 71
**94. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 71
**95. irudia.** Pertsonak, musika entzuteko ohituraren arabera (%) 71
**96. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%) 72
**97. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren arabera (%) 72
**98. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%) 72
**99. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen arabera (erantzun ugari) (%) 73
**100. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 73
**101. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren arabera (erantzun ugari) (%) 73
**102. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 73
**103. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%) 74
**104. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 74
**105. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 75
**106. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta sexuaren arabera (%) 75
**107. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera (%) 75
**108. irudia.** Pertsonak, musika erosteko ohituren arabera (%) 76
**109. irudia.** Musika erosteko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 76
**110. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%) 77
**111. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 77
**112. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 78
**113. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (%) 78
**114. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 78
**115. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta sexuaren arabera (%) 78
**116. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta adin-taldearen arabera (%) 79
**117. irudia.** Pertsonak, musika-kontzertuetara joateko ohituren arabera (%) 79
**118. irudia.** Musika-kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 79
**119. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%) 80
**120. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%) 80
**121. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 80
**122. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, musika entzutera joan ohi diren lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 81
**123. irudia.** Pertsonak, kontzertu gehiagotara ez joateko arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 81
**124. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, Lurralde Historikoaren arabera (%) 82
**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, sexuaren arabera (%) 82
**126. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera (%) 82


## 6.


**127. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua (%) 86
**128. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 86
**129. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa) 86
**130. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 87
**131. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa) 87
**132. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%) 87
**133. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 88
**134. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua (%) 89

**135. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 89
**136. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa) 89
**137. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 90
**138. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa) 90
**139. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%) 90
**140. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 91
**141. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko telebistak ikusten ematen duten denbora (%) 92
**142. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko irratiak entzuten ematen duten denbora (%) 92

**7.**

**143. irudia.** Pertsonak, zinemak sortzen dien interes-mailaren arabera (%) 96
**144. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 96
**145. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 96
**146. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 96
**147. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 96
**148. irudia.** Pertsonak, zinemara joateko ohituraren arabera (%) 97
**149. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 97
**150. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, joandako emanaldien arabera (%) 97
**151. irudia.** Pertsonak, zinemara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 98
**152. irudia.** Pertsonak, zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko ohituren arabera (%) 98
**153. irudia.** Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 99
**154. irudia.** Pertsonak, bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%) 99

**8.**

**155. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoetarako bertaratzearen arabera. EAEren eta Espainiaren alderaketa (%) 102
**156. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%) 105
**157. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa) 105
**158. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa) 105
**159. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa) 105
**160. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa) 106
**161. irudia.** Pertsonak, antzerkia ikustera joateko ohituraren arabera (%) 106
**162. irudia.** Pertsonak, lirikara joateko ohituraren arabera (%) 106
**163. irudia.** Pertsonak, dantza-ikuskizunetara joateko ohituraren arabera (%) 106
**164. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%) 106
**165. irudia.** Antzerkia ikustera joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 107
**166. irudia.** Lirikara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 107
**167. irudia.** Dantza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 108
**168. irudia.** Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, ikasketa-mailaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%) 108
**169. irudia.** Ikuskizun eszenikoetara joateko ohitura duten pertsonak, emanaldi-kopuruaren arabera (%) 109
**170. irudia.** Pertsonak, ikuskizun eszenikoetara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%) 109
**171. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 110
**172. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta sexuaren arabera (%) 110
**173. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta adin-taldearen arabera (%) 110

# 1. TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK



1.1. EAE-ko biztanleria

1.2. Biztanleria, hizkuntza-gaitasunaren arabera

1.3. Etxeetako kultura-ekipamendua

# 1. TESTUINGURUA: OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Kapitulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ohitura, jarduera eta kontsumo kulturalak dagokien testuinguruan jartzeko eta aztertzeko oinarrizko informazioa ematen da, labur-labur. Hautatutako adierazleak biztanleei, haien hizkuntza-gaitasunari, eta, azkenik, etxeetako kultura-ekipamenduari buruzkoak dira. Kapitulu honetan biltzen diren datuak *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008*koak dira, beste iturri batzuk aipatzen ez badira, behintzat.

## 1.1. EAE-KO BIZTANLERIA

**2007ean, 2.141.860 biztanle zituen EAEk, guztira.** Horietatik, gehixeago ziren emakumezkoak gizonezkoak baino (%51,1). Adin-taldeak kontuan hartuta, adineko pertsonen talde handia erakusten du biztanleriaren piramideak (%30 baino gehiago dira 55 urtetik gorakoak). Gazteen taldea, berriz, txikiagoa da (%25,6k 15 eta 34 urte arteko adina du).

**1. irudia.** 2007ko EAEko biztanleen piramidea, sexuaren eta adinaren arabera (%)




**Iturria:** *Udal-errolda.* INE, 2007

**Eragiketa estatistiko honetan, 15 urteko edo gehiagoko biztanleria aztertzen da. Talde horren barruan, 1.873.262 biztanle daude** Euskal Autonomia Erkidegoan. Bizkaiak du biztanleria-bolumen handiena (%53,6), segidan, Gipuzkoak (%32,1) eta txikiena Arabak (%14,1). Adinari dagokionez, EAE-ko joera bera adierazi dute hiru lurraldeek.

**2. irudia.** 2007ko EAEko biztanleak, Lurralde Historikoaren arabera (%)




**Iturria:** *Udal-errolda.* INE, 2007

## 1.2. BIZTANLERIA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

**16 urteko edo gehiagoko 10 pertsonatik 3 elebidunak dira,** hau da, 557.700 pertsona EAE guztian. Biztanleriaren %18,3k elebidun pasibotzat du bere burua, eta %51,5 elebakar erdalduna da.

**3. irudia.** 2006ko EAEko biztanleak, hizkuntza-gaitasunaren arabera (%)




**Iturria:** *Soziolinguistikako IV.* Inkesta. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza 2006

**Gipuzkoan dago elebidunen ehunekorik eta kopururik handiena** (%49,1, hau da, 291.900 pertsona). Bizkaiaren kasuan, biztanleriaren %23 da elebiduna (228.500 pertsona), eta, Araban, %14,2 (zehazki, 37.182 pertsona).

**4. irudia.** 2006ko EAEko biztanleak, hizkuntza-gaitasunaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**Iturria:** *Soziolinguistikako IV.* Inkesta. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza 2006

## 1.3. ETXEETAKO KULTURA-EKIPAMENDUA

**Etxeetako ikus-entzunezko ekipamenduek eta soinu-ekipamenduek jarduera kulturala ahalbidetzen dute, euskarri tradizionalak teknologia aurreratuenarekin konbinatuz.** Ia etxe guztietan daude telebista eta irratia. Galdetutako pertsonen arabera, 10 etxetik 8tan dago DVDa eta musika-ekipoa. MP3/MP4 eta CD-grabagailua, berriz, etxeen erdietan baino gehiagotan daude (%52-53).

**5. irudia.** Pertsonak, etxeko ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren arabera (%)




**Arlo horretan, ez dago desberdintasun nabarmenik lurraldeen artean.** Dena den, Arabako biztanleek CD-grabagailu eta erreproduzitzailea duten mugikor gehiago dituzte (%57,9 eta %39,4, hurrenez hurren). Bestalde, Bizkaian eta Araban, pixka bat gehiago jarri da Lurreko Telebista Digitala (etxeen %40 inguruan. Gipuzkoan, berriz, %37an).

**6. irudia.** Pertsonak, etxeko ikus-entzunezko ekipamenduaren eta soinu-ekipamenduaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**Horrez gain, EAEko etxe gehienetan daude IKT ekipamenduak.** 10 etxetik 6k dute ordenagailua (%28,3an ordenagailu eramangarriak dituzte eta %59,1ean Internet zerbitzua dute). Espainiako etxeen %43,3k du Interneteko konexioa[1]. Lurraldeka, Araba da lehena: etxeen %65,5ean dago ordenagailua, %29,6an ordenagailu eramangarria eta %66,5ean Interneteko konexioa.

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

**7. irudia.** Pertsonak, etxeko IKT-ekipamenduaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**Etxe gehienetan, banda zabaleko konexioa dago** (10 etxetik 8tan baino gehiagotan erabiltzen da teknologia hori).

**8. irudia.** Pertsonak, sare-konexio motaren arabera (%)




Oinarria: Internet konexioa duten pertsonak, biztanleen %59,1

**EAEko etxe gehienetan daude liburuak (%98,9) eta CDak (%83,4).** Familien %75ek 50 aletik gorako liburutegia dute, eta %64,6k 50 CD baino gehiago dituzte.

**9. irudia.** Liburuak eta CDak etxeetan (%)




**10. irudia.** Pertsonak, etxeko liburu- eta CD-kopuruaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: CD dituzten pertsonak, biztanleen %83,4
**(2)** Oinarria: Liburuak dituzten pertsonak, biztanleen %98,4

EAE

# 2. EAE-KO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK. EMAITZA NAGUSIAK



2.1. Kultura- jardueretarako interesa
2.2. Biztanleen ohitura kulturalak
2.3. Jarduera eta kontsumo kulturalen ezaugarriak
2.4. Euskarazko jarduerak eta euskal produktuen kontsumoa
2.5. Internet erabilera kulturarekiko
2.6. Beste jarduera kultural amateur batzuk egiteko ohitura
2.7. Alderaketa Europarekin

# 2. EAE-KO OHITURA, JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALAK. EMAITZA NAGUSIAK

Kapitulu honetan, EAEn egindako eragiketa estatistikotik ateratako emaitza nagusiak laburtuko ditugu. Besteak beste, arlo hauek aztertu dira: jarduera kulturalekiko interesa, biztanleriaren ohiturak, praktika eta kontsumo kulturalaren ezaugarriak eta biztanleria elebidunaren praktikak eta kontsumoa, Interneten erabilera kulturaren arloan eta beste jarduera kultural batzuk. Azkenik, Europako Batasuneko beste informazio-iturri batzuetatik lortutako emaitzekin egindako konparaketa gaineratu dugu. Kapitulu honetan agertzen diren datuak *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008* lanean jasotakoak dira, beste iturri batzuk zehazten direnean salbu.

## 2.1. KULTURA-JARDUERETARAKO INTERESA

**EAEko biztanleek musika entzuteko eta irakurtzeko interesa agertu dute,** batez ere: 10etik 7 inguruko edo 7tik gorako puntuazioa jaso dute jarduera kultural horiek lurralde guztietan (musikak 7,4 puntuko batezbesteko globala du, eta irakurketak 7koa). Horien ondoren, eta modu zehatzagoan, liburu eta egunkarien irakurketak, zinemak eta egungo musikaren kontzertuek 6ko puntuazioa edo 6tik gorakoa dute. Erdi-bidean daude antzerkia (5,3ko puntuazioa) eta musika klasikoko kontzertuak (5,1). Bestalde, bertsolaritzak biztanleria elebidunaren artean sortzen duen interesa azpimarratu behar da (5,2). Museoek, liburutegiek eta ikusizko arteek 4 inguruko puntuazioa dute. Azkenik, lirikak eta dantzak puntuazio txikiagoak dituzte.

**11. irudia.** Kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




[1] Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

**Interes horiek finkatuta daude EAEko biztanlerian; izan ere, ez dago ia alderik hiru lurraldeen artean.** Dena den, Gipuzkoako biztanleek puntuazio txikiagoak emateko joera dute.

**12. irudia.** Arabako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




**13. irudia.** Bizkaiko kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




**14. irudia.** Gipuzkoako kultura-jardueretarako interesaren rankinga (batezbestekoa)




[1] Interesari buruzko balorazioa biztanleria elebidunak soilik egindakoa.

## 2.2. BIZTANLEEN OHITURA KULTURALAK

**Grabatutako musika entzutea eta irakurtzea dira herritarren ohitura kultural nagusiak.** Galdetutako herritarren hiru laurdenek baino gehiagok (%77,9) musika entzun dute azken urtean, eta, epealdi horretan, 10 pertsonatik ia 7k libururen bat irakurri dute aisialdian.

**15. irudia.** Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**Leku jakin batera joatea eskatzen duten jarduera kulturalek, ostera, askoz ere ehuneko txikiagoak dituzte.** Biztanleen %54,1 joan dira zinemara azken urtean, %39,1ek museoak bisitatu dituzte eta %30,2 liburutegietara joan dira.

**Zuzeneko ekitaldien artean, musika-kontzertuetara joaten da jende gehiena; ondoren, antzerkira, eta, dantza eta opera ikustera joaten da jende gutxiena.** Herritarren %37,7 joan dira kontzertuetara, %21,8 antzerkira, %9,3 dantza-ikuskizunetara eta %7,6 lirika-ikuskizunetara.

**Oro har, Arabako biztanleek agertu dute ohitura gehien aztertutako jarduera kulturaletarako.** Dena den, musikarekin lotutako jarduerei (musika entzutea eta kontzertuetara joatea) eta opera- eta dantza-ikuskizunetara joateko ohiturari dagokienez, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek ohitura handiagoa adierazi dute.

[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**16. irudia.** Pertsonak, Araban azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**17. irudia.** Pertsonak, Bizkaian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**18. irudia.** Pertsonak, Gipuzkoan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**Musika entzuteaz, irakurtzeaz eta zinemara joateaz gain, herritar gehienek ez dute beste jarduera kulturalik egiteko ohiturarik adierazi.** Azken urtean jarduera horiek egin ez dituzten herritarrengan arreta jarrita, azpimarratzekoa da hamar pertsonatik sei baino gehiago ez direla museoetara edo kontzertuetara joan epealdi horretan, eta hamarretik ia zortzik ez dutela zuzeneko antzerkirik ikusi.

Zinemara, zuzeneneko musika-kontzertuetara eta ikuskizun eszenikoetara gehiago joan nahiko luketenek **denbora falta eta kostu ekonomikoa aipatzen dituzten oztopo nagusi gisa.** Hiru jarduera kultural horietan, denbora falta da adierazitako faktore nagusia (herritarren erdiak, gutxi gorabehera). Kostu ekonomikoari, berriz, garrantzi txikixeagoa eman diote: zinemaren eta kontzertuen kasuan, herritarren %40k baino gehiagok aipatzen dute, eta, ikuskizun eszenikoen kasuan, %35ek. Bestalde, eskaintzaren eskasia aipatzen dute, batez ere, kontzertuen eta ikuskizun eszenikoen kasuan (%24,6 eta %21,1, hurrenez hurren).

**19. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %79,8

**20. irudia.** Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %57,5

**21. irudia.** Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Ikuskizun eszenikora gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %50,9

## 2.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK

**Ohiko kontsumitzaileek irakurketarekin lotutako jarduera asko egiten dituzte (liburuak irakurtzea eta liburutegietara joatea).** Azken hilabetean liburutegira joan diren herritarrak (%17,5) 6 aldiz joan dira, batez beste.

**22. irudia.** Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,5)

Bestalde, ohiko irakurleek (herritarren %45,7) 1,8 liburu irakurri dituzte azken hilabetean.

**23. irudia.** Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %45,7)

**Astean 16 ordutik gora telebista ikusteko eta irratia entzuteko.** Asteko kontsumo kulturalen artean, herritarrek telebista ikusten pasatzen dute denbora gehiena (16,8 ordu), eta, segidan, irratia entzuten (16 ordu). Bestalde, ohiko kontsumitzaileek, batez beste, 8 ordu baino gehixeago pasatzen dituzte asteko (8,7) grabatutako musika entzuten.

**24. irudia.** Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**Zinemara, antzerkira eta musika-kontzertuetara joateko maiztasunari dagokionez, zenbait diferentzia daude.** Ohiko kontsumitzaileak 3,2 aldiz joan dira zinemara azken hiruhilekoan. Antzerkira, berriz, 1,7 aldiz, epealdi berean.

**25. irudia.** Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Musika entzuteko ohitura dute pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**26. irudia.** Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %40)

**27. irudia.** Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanleen %9,2)

**Azken hiruhilekoan liburuak erosi dituzten irakurleak biztanleriaren erdia dira, gutxi gorabehera (3,8 ale, batez beste).** Bestalde, 10 pertsonatik 3k musika erosi dute epealdi berean.

**28. irudia.** Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, Lurralde Historikoaren arabera




Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %49,1

**29. irudia.** Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%)




**30. irudia.** Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, Lurralde Historikoaren arabera (%)



## 2.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

**Herritar elebidunek euskal musika asko kontsumitzen dute, kontzertuetara joanez nahiz musika erosiz.** Zuzeneko musika entzuteko ohitura duen publikoaren %64,6 euskal musikako kontzertuetara joan da eta erosleen %62,5ek euskal musika erosi dute.

**Halaber, herritar elebidunek euskarazko antzerki asko ikusi dute azken urtean, batez ere, Gipuzkoan.** Azken urtean antzerkia ikustera joan diren herritar elebidunen %46,8 euskarazko lanak ikustera joan da. Gipuzkoako herritarren kasuan, handiagoa da ehunekoa (%52,8). Ehuneko hori Bizkaikoa baino 10 puntu handiagoa da, eta, Arabaren kasuan, diferentzia are handiagoa da (%39,5).

**Zuzeneko ikuskizunen artean, azken urtean, EAEko biztanleria elebidunaren %18,1 joan da bertsolaritza-emanaldiak ikustera.**

**31. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)




**Azken hiruhilekoan, 10 irakurle elebidunetik 3-4k irakurri dute euskaraz.** Arlo horretan, Araba nabarmendu behar da. Izan ere, irakurle elebidunen %47,3k euskaraz irakurtzen dute. Bizkaian, berriz, %31,3k eta Gipuzkoan %37,6k.

**32. irudia.** Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3
**(2)** Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %23,4

**33. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %66,9
**(2)** Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %24,5

**Jarduera kulturalak egiteko Internet erabiltzen duten herritar elebidunen erdiak** (%46,1) **euskarazko edukietara jotzen du nahiko maiz.** Eduki horien artean, web gune edo dokumentazio kulturalak (%36,7) eta musika (%22,4) azpimarratu behar dira.

**Lurraldeka, batez ere, Bizkaiko herritarrek jotzen dute euskarazko edukietara.** Hala, Internet helburu kulturaletarako erabiltzen dutenen ia %55ek nahiko maiz egiten dute jarduera hori; Araban eta Gipuzkoan, berriz, %46 inguruk.

**34. irudia.** Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %46,1

## 2.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO

**Internet, kultura-kontsumorako bitarteko bezala indartuz doa, bereziki gizon eta biztanleria gaztearen artean.** 10etatik kasik 4 pertsonak, sarea, nolabaiteko kultura-kontsumoa egiteko erabiltzen du. Gizonek 10 puntutako abantaila dute emakumeekiko (%44,3 %34,2ren aurrean). Gazteen artean (15etik 34 urtetara) eta goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren artean erabilera hau %60tik gorakoa da.0.

**Arabako etxeek** Internet konexioa eta informatika-ekipamendua edukitzeko duten aukera handiagoari lotuta, bitartekari honen bidez garatutako **jarduera kulturalak hedatuagoak daude lurralde honetan** (Arabako biztanleriaren %46,4k Internet arrazoi kulturalengatik erabiltzen du, Bizkaian eta Gipuzkoan %38 kegiten duelarik).

**35. irudia.** Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




**36. irudia.** Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)



**Batez ere, kulturarekin lotutako web guneak ikusteko, egunkariak irakurtzeko eta musika entzuteko erabiltzen da sarea.** Hain zuzen, helburu kulturaletarako Internet erabiltzeko ohitura duten herritarren artean (biztanleriaren %39,1), %60 baino gehixeagok kulturari buruzko web guneak ikusteko erabiltzen dute, %45,9k egunkarien edizio digitalak irakurtzeko eta %20,4k dokumentazio-zentro eta liburutegi birtualetan kontsultak egiteko. Jarduera horiez gain, Internet asko erabiltzen da musika entzuteko ere (%40,1). Internet bidez produktu kulturalak erosteko ohitura ez dago oso zabalduta oraindik; bai, ordea, ikuskizun kulturaletarako sarrerak erostekoa (%35,6).

**37. irudia.** Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %39,1

## 2.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

**Herritarren herenak baino gehiagok jarduera kulturalak egiten ditu modu amateurrean. Arabako parte-hartze maila pixka bat handiagoa da beste lurraldeetakoa baino (herritarren %35,1).**

**38. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)



**Argazkilaritza da hiru lurraldeetan gehien egiten den jarduera kulturala.** Bereziki, Gipuzkoan nabarmentzen da: jarduera amateurren batean parte hartzen duten herritarren ia %35ek argazkilaritza egiten dute. Jarduera horren atzetik daude pintura eta idazketa: %18 inguruko parte-hartzea dute. Lurraldeka, pinturarekin lotutako jardueretako parte-hartzea handiagoa da Araban (%22,7). Idazketa, berriz, Gipuzkoan eta Bizkaian gehiago sustraituta dago (%21,3 eta %19,1, hurrenez hurren).

**39. irudia.** Azken urtebeteko EAEko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,3

**40. irudia.** Azken urtebeteko Arabako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartuduten pertsonak, biztanleen %35,1

**41. irudia.** Azken urtebeteko Bizkaiko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,4

**42. irudia.** Azken urtebeteko Gipuzkoako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %33,9

**Adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da jarduera kulturaletan modu amateurrean parte hartzeko ohitura.** 35 urtetik beherako 10 gaztetik 4k baino gehiagok jarduera kulturalen batean parte hartzen dute; 55 urtetik gorakoen artean, berriz, %26,7k bakarrik.

**43. irudia.** Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)




Gazteenek (15 eta 24 urte artekoek) egiten dituzten jarduera kultural amateurren artean, hauek dira nagusiak: musika-tresna bat jotzea (jarduera kulturaletan modu aktiboan parte hartzen dutenen %33,4k egiten dute), argazkilaritza (%28,8), idazketa (%25,6) eta pintura (%24,8). Beste adin-taldeetan, arte plastikoek garrantzi handiagoa dute, eta, adinekoen artean (55 urtetik gorakoak), abesbatzetan parte hartzea nabarmendu behar da.

**44. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)



## 2.7. ALDERAKETA EUROPAREKIN

**Atal honetan, alderaketa labur bat egin da Europako ohitura kulturalekin , Eurostaten eta Espainiako Kultura Ministerioaren informazioa erabilita.** Adierazle homologagarriak bakarrik erabili dira, eta informazioaren erreferentzia-aldiak 2007 ingurukoak dira. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

**45. irudia.** EAEko eta EUROPAko kultura-adierazleen alderaketa (%)




(1) **Iturria**: *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokia
(2) **Iturria**: *Eurobarometroa 67.1*, Eurostat, 2007
(3) **Iturria**: *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta 2006-2007,* Kultura Ministerioa

**Liburuen irakurketari dagokionez, EAEn emaitza hobeak lortu dira Europan eta Estatuan baino.** Liburuen irakurketaren arloan, EAE pixka bat gorago dago Europako batezbestekoa baino. Espainiako herritarrekiko, berriz, aldea are handiagoa da.

**Bestalde, EAEko herritarrek Europakoek eta Espainiakoek baino ohitura handiagoa dute, batez beste, zinemara joateko.** Dena den, ez dago alde nabarmenik: EAEko ehunekoa Estatukoa baino bi puntu handiagoa da eta Europakoa baino hiru puntu handiagoa.

**Musika-kontzertuetara joateko ohiturari dagokionez, ez dago ia alderik EAEko eta Europako datuen artean.** Espainiako Kultura Ministerioaren inkestan musika klasikoko eta egungo musikako kontzertuak bereizten dira. Beraz, kontu handiz egin behar da konparaketa.

**Europan ohitura handiagoa dago antzerkira joateko.** Hala, EAEko ehunekoa (%21,8) Europakoa baino hamaika puntu txikiagoa da, eta hurbilago dago Espainiako ehunekotik (%19).

**EAEko hamar pertsonatik hiru liburutegira joan dira azken urtean.** Europako ehunekoa handiagoa da (%35), Espainiako Kultura Ministerioak jasotakoa, berriz, askoz ere txikiagoa (%17,6).

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK



3.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

3.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK

## 3.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Irakurketarako interesa

**EAEko herritarrek interes handia agertu dute irakurketarako.** Oro har galdetuta, 7 puntuko batezbestekoa ateratzen da (0 eta 10 arteko eskalan). Liburuak eta egunkariak irakurtzeko interesa antzekoa da (6,8 eta 6,7 puntu, hurrenez hurren). Aldizkariak irakurtzeko ohitura gutxiago dago (4,8 puntu).

**Helduek eta prestakuntza-maila handieneko taldeek irakurtzeko interes handiagoa agertu dute:** zehazki, 35-44 urteko pertsonek 7,6ko batezbestekoa dute, eta unibertsitateko ikasketak dituztenek 8,4koa.

### Liburuak irakurtzea eta erostea

**Irakurtzeko ohitura lotuago dago aisialdiarekin arlo profesionalarekin edo ikasketekin baino.** Izan ere, ikasketengatik edo langatik irakurtzen dutenen (%18,7 azken hilabetean) bikoitza baino gehiago dira aisialdian irakurtzeko ohitura dutenak (%45,7 azken hilabetean). Nabarmentzekoa da herritarren erdiak ez duela inoiz edo ia inoiz irakurtzen lanagatik edo prestakuntzagatik.

**Herritarren gehiengoak nahiko maiz irakurtzen du:** %56k baino gehiagok liburu bat irakurri dute aisialdian, azken hiruhilekoan. Datu horiek oso positiboak dira Kultura Ministerioak Estatu osorako egindako inkestaren emaitzekin alderatuta (%42,8). Beste muturrean, herritarren %20k aitortzen dute ez dutela inoiz edo ia inoiz irakurtzen aisialdian.

**Emakumeek eta helduek irakurtzeko ohitura handiagoa dute.** Emakumeen %48,5ek libururen bat irakurri dute azken hilabetean; gizonen kasuan, berriz, %42,7k. Bestalde, 25 eta 54 urte arteko pertsonek dute irakurtzeko ohitura handiena. Lurraldeka, Araban ohitura handixeagoa dago aisialdian liburuak irakurtzeko (%48,7). Beste lurraldeetan, berriz, %45 inguruko balioak jaso dira. Biztanleria handiko udaletan irakurtzeko ohitura handiagoa dago.

**Irakurtzeko ohitura duten pertsonek 1,8 liburu irakurtzen dituzte hilean, batez beste.** Horietatik gehienek liburu bat (%57,5) edo bi (%25,5) irakurtzen dituzte hilean. Dena den, badago asko irakurtzen duen talde bat (%16,9), hilean 3 liburu baino gehiago irakurtzen dituena.

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

**Azken hiruhilekoan liburuak irakurri dituzten pertsona elebidunen %35,7k euskarazko liburuak irakurri dituzte.** Oro har, liburuen irakurketarekin gertatzen ez den bezala, gizonek ohitura handiagoa dute euskarazko liburuak irakurtzeko (%37,6) emakumezkoek baino (%33,8). Araban jaso dira emaitza altuenak: herritar elebidunen %47,3k euskarazko liburuak irakurtzen dituzte. Bestalde, batez ere, gazteek irakurtzen dute euskaraz (15 eta 24 urte arteko irakurle elebidunen %43,2).

**Azken hiruhilekoan liburuen bat erosi duten irakurleak ia biztanleriaren erdia dira (3,8 liburu, batez beste).** Gehienek (ia %35) 2 edo 3 erosi dituzte; %30ek, ordea, 4 eta 10 liburu artean.

**Liburuak irakurtzeko, gehienbat, erosi egiten dira, eta, batez ere, saltoki txiki espezializatuetan** (herritarren %56,6k adierazi dute hori). Kate handien denda espezializatuetan eta saltoki handietan, berriz, gutxiago erosten dute. Internet bidez liburu gutxi erosten dira oraindik ere (%2,9).

## Egunkariak eta aldizkariak irakurtzea eta erostea

**EAEko herritarren erdiak baino gehiagok egunkariak irakurtzen ditu egunero edo ia egunero (%58,4).** Datu hori askoz ere altuagoa da Kultura Ministerioak[1] Estatu osoan egindako inkestan jasotakoa baino. Inkesta horren arabera, Espainiako herritarren %37,3k diote egunkariak irakurtzen dituztela egunero edo ia egunero, eta %22,6k aitortu dute ez dutela egunkaririk irakurtzen (inoiz ez edo ia inoiz ez). EAEko herritarren %6,4k bakarrik aitortu dute hori.

**Aldizkariei dagokienez, EAEko herritarren %60,4k astean behin baino gutxiagotan irakurtzen dituzte aldizkariak.** Hala eta guztiz ere, datu hori askoz ere altuagoa da Estatukoa baino (%76,2k astean behin baino gutxiagotan irakurtzen dute). Bestalde, EAEko herritarren laurdenak aitortzen du ez duela aldizkaririk irakurtzen inoiz edo ia inoiz. Estatuan, %50 inguruk aitortzen dute hori.

**Egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohitura dutenen profila oso desberdina da arlo batzuetan.** Gizonezkoek irakurtzeko ohitura handiagoa dute emakumezkoek baino (gizonen %73,1ek egunkariak irakurtzeko ohitura dute eta emakumezkoen %60,7k). Aldizkariei dagokienez, berriz, parean daude biak (gizonezkoen %38,6 eta emakumezkoen %40,4). Gazteenek eta adinekoek ohitura txikiagoa dute egunkariak irakurtzeko (talde horietako %55-60k dute irakurtzeko ohitura, eta, gainerako taldeen kasuan, %70ek). Gazteek, ostera, aldizkariak irakurtzeko ohitura askoz ere handiagoa dute (gazteen %47k baino gehiagok dute aldizkariak irakurtzeko ohitura).

**Egunkariak irakurtzen dituztenek interes handia agertu dute kulturaren arloko albisteekiko** (irakurleen %33,8). Gizarte-gaiek bakarrik gainditzen dituzte horiek (%49,4). **Aldizkarien irakurleek,**

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

**berriz, beste eduki batzuek dituzte nahiago** (igandetako gehigarriak eta bihotzeko aldizkariak edo gizarte-kronikak). Aldizkari kulturalak laugarren lekuan daude (%13,7).

**Egunkarien irakurle elebidunen %33,8k euskarazko albisteak irakurtzen dituzte** (%9,1ek lehentasuna ematen diete euskarazkoei eta %24,7k euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzen dituzte). **Aldizkarien kasuan, ehunekoak pixka bat baxuagoak dira:** %16,6k euskaraz irakurtzen dituzte (horietatik %6,4k nahiago dute euskaraz bakarrik irakurri eta %10,2k euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzen dute).

**Prentsa idatzia (egunkariak eta aldizkariak) irakurri ahal izateko ere, batez ere, erosi egiten da.** Hala ere, nabarmendu behar da %30 inguruk doan irakurtzen dituela (tabernan, liburutegian...). Oraindik ere paperezko argitalpenak nagusi izan arren, Internet geroz eta gehiago erabiltzen da informazioa jasotzeko. Galdetutako pertsonen %17,8k diote egunkari nagusien edizio digitalak irakurtzen dituela.

## Liburutegiak

**Herritarren %46,8k interes ertaina edo oso handia agertu dute liburutegiengatik.** Hala ere, herritarren erdiak baino gehiagok ez du ia interesik agertu. Beraz, liburutegiek 3,9 puntuko batezbesteko balorazioa jaso dute. Emakumezkoek, gazteek eta ikasketa-maila handienak dituztenek balorazio hobea adierazi dute.

**Horrekin batera, EAEko 10 biztanletik 4 joaten dira liburutegietara.** Datu hori altuagoa da Kultura Ministerioaren inkestan[1] aurkeztutakoak baino: Espainiako herritarren %67,6k ez dute ohiturarik liburutegietara joateko, eta %13,5 gutxienez behin joan dira azken hiruhilekoan. EAEko ehunekoa, berriz, askoz ere handiagoa da (10 puntu baino gehiago).

**Liburutegietara joateko ohitura oso desberdina da adinaren arabera.** Hala, liburutegietara joateko ohitura, maiztasuna eta intentsitatea oso desberdina da aldagai horren arabera: **15 eta 24 urte arteko gazteen %40,8k liburutegietara joateko ohitura dute.** Herritar elebidunek eta unibertsitateko ikasketak dituztenek ere liburutegietara joateko ohitura handia agertu dute. Azkenik, udalerri txikienetako biztanleek (%17,1) eta, bereziki, hiriburuetakoek (%21,4) adierazi dute liburutegira joateko ohitura handiena.

**Liburutegietako ohiko erabiltzaileak, batez beste, 6 aldiz joan dira liburutegira azken hilabetean** (herritarren %17,5). Horrek adierazi du liburutegietara joateko ohitura handia dagoela.

[1] *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta (2006-2007)*, Kultura Ministerioa.

**Liburutegira joateko arrazoi nagusien artean, liburuen mailegua azpimarratu behar da.** Liburutegietara joaten diren herritarren erdiak baino gehiagok arrazoi nagusien artean aipatzen du hori. Halaber, ikasketekin lotutako jardueretarako (%22,2) eta aisialdirako (%21) edo lanerako (%18) liburuak begiratzeko joaten dira liburutegira.

**Zerbitzu horietara gehiago jotzea galarazten duten arrazoiak aztertuta, arlo pertsonaleko arrazoiak azpimarratu behar dira (interes falta edo denbora falta, kasu).** Liburutegien kudeaketarekin edo kokapenarekin lotutako faktoreak ez dira bereziki garrantzitsuak. Edonola ere, herritarren %11ren ustez, funts gehiago jarri beharko lirateke zerbitzu horietarako.

**Liburutegiak erabiltzen dituztenek oso era baikorrean baloratzen dute eskainitako zerbitzua.** Erdiak baino gehiago (%55,2) pozik daude jasotako zerbitzuarekin, eta %27,1 oso pozik. Beraz, liburutegiek 7,8 puntu jaso dituzte batez beste (0 eta 10 arteko eskalan).

## 3.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**46. irudia.** Pertsonak, irakurketarako interes-mailaren arabera (%)




**47. irudia.** Irakurketarako interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**48. irudia.** Irakurketarako interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**49. irudia.** Irakurketarako interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**50. irudia.** Irakurketarako interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**51. irudia.** Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)




**52. irudia**. Aisialdiko liburuak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Liburu-irakurtzeko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan liburuak irakurri dituztenak)

**53. irudia.** Irakurtzeko ohitura duten pertsonak, hilabetean irakurtzen duten liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituztenak, biztanleen %45,7)

**54. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %66,9

**55. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsonak, biztanle elebidunen %66,9

**56. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsonak, biztanle elebidunen %66,9

**57. irudia.** Pertsonak, azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten pertsonak, eta epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %49,1

**58. irudia.** Pertsonak, liburuak erosteko lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %82,2

**59. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)



**60. irudia.** Egunkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Egunkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean hiru edo lau egunetan edo egunero edo ia egunero egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**61. irudia.** Aldizkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Aldizkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean behin gutxienez aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**62. irudia.** Egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, interes gehien eragiten dieten berrien arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %86,6

**63. irudia.** Aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %56,5

**64. irudia.** Pertsona elebidunak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko nahiago duten hizkuntzaren arabera (%)




**(1)** Oinarria: Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %88,3
**(2)** Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %60,6

**65. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun ugari) (%)




**(1)** Oinarria: Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %86,6
**(2)** Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %56,5

**66. irudia.** Pertsonak, liburutegiek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**67. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**68. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**69. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**70. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**71. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko ohituraren arabera (%)




**72. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak)

**73. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,5)

**74. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,5)

**75. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %38,2

**76. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko hobetu behar direla uste duten eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




**77. irudia.** Pertsonak, liburutegiekin/mediatekekin duten gogobetetze-mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %38,2

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK



4.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

4.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK

## 4.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interesa

**EAEko herritarrek oso interes polarizatuak agertu dituzte museo eta arte-zentroekiko. Museoen kasuan,** herritarren %34,1ek interes handia adierazi dute (7 eta 10 puntu artean). %24,8k, ostera, oso interes txikia agertu dute. **Herritarren artean, talde hauek adierazi dute interesik handiena: emakumezkoak** (museoetara joateko ohitura dute, batez ere, emakumezkoek 5,1 puntu eman dizkiete, batez beste, eta gizonezkoek 4,6. Arte-galeriei, berriz, emakumezkoek 4,4 puntu eman dizkiete, eta gizonezkoek 3,9) **eta unibertsitateko ikasketak dituztenak** (museoek 6,2 puntu jaso dituzte eta erakusketek 5,8).

### Museoetara eta arte-zentroetara joateko ohitura

**EAEko 10 biztanletik 4 museoren batera joan dira azken urtean.** Erakusketen eta arte-galerien kasuan, %21,7ra jaisten da ehunekoa. Azpimarratu behar da herritarren %59k ez dutela ohiturarik arte-zentroetara joateko (erakusketak eta galeriak), eta %36,2 ez direla museoetara joaten.

**Helduek eta hezkuntza-maila handiena dutenek ohitura handiagoa adierazi dute museoetara joateko.** Azken hiruhilekoan museoetara joan direnak aztertuz (herritarren %18,1), ikusten da, batez ere, 35 eta 44 urte arteko helduek (%22,1) eta unibertsitateko ikasketak dituztenek (%33,1) bisitatu dituztela. Arlo horretan, ia ez dago alderik sexuaren arabera. Izan ere, EAEko gizonen %18,3 eta emakumezkoen %17,9 joan dira museoetara azken hiruhilekoan.

**Arte-zentroetara joaten direnen profilak baditu ezaugarri bereizgarri batzuk:** kuantitatiboki, azken hiruhilekoan museoetara baino jende gutxiago joan den arren (arte-zentroetara %9,6 eta museoetara %18,1), joan direnak intentsitate handiagoarekin joan dira (arte-zentroetara 2,2 aldiz, batez beste, eta museoetara 1,9 aldiz, batez beste). Bestalde, gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago joan dira (gizonezkoen %10,2 eta emakumezkoen %9,1). Kasu honetan ere, ikasketa-maila funtsezko aldagaia da arte-galeriak eta erakusketak bisitatzeko ohitura aztertzeko: unibertsitateko ikasketak dituzten herritarren %18,7k arte-zentroak bisitatu dituzte azken hiruhilekoan. Bigarren mailako ikasketak dituztenen kasuan, berriz, %8,8k.

Lurraldeka, **Arabako herritarrek museoetara joateko ohitura handiagoa dute** (%23,1) bizkaitarrek (%19,6) eta, batez ere, gipuzkoarrek (%13,4) baino. Galeria eta erakusketara joateko ohiturari dagokionez, arabarren %14,5ek dute ohitura hori, gipuzkoarren %9,5ek eta bizkaitarren %8,4ek. **Hiriburuetako herritarrek horrelako ekipamenduetara joateko ohitura askoz ere handiagoa adierazi dute udalerri txikiagoetako herritarrek baino** (biztanleen %24,1 joaten dira museoetara, eta 25.000 biztanletik beherako herrietan, %11-13. Bestalde, biztanleen %13,1 joaten dira galeria eta erakusketetara, eta 10.000 biztanletik beherako herrietan, %6,5).

**10 bisitaritik 4 inguruan dituzten museoetara joaten dira.** Gehienbat, Gipuzkoako herritarrak joaten dira beste udalerri batzuetara horrelako kultura-ekipamenduak bisitatzeko (gipuzkoarren %84 inguru. arabarren eta bizkaitarren kasuan, berriz, %54). Gipuzkoarren kasuan, EAEtik kanpo dauden museoetara joan direnen ehunekoa azpimarratu behar da (%50 inguru).

**Azken hiruhilekoan bisitatutako museoen %78 arte-museoak izan dira.** Horien oso atzetik daude museo espezializatuak (%8,2) eta arkeologiako eta historiako museoak (%7,3). Beste motetako museoetara egindako bisiten ehunekoak oso txikiak dira.

**Bisitariak oso pozik agertu dira museoei eta eskainitako zerbitzuei buruz galdetzean. Hala, 7,9ko puntuazioa jaso dute** (0 eta 10 arteko eskalan). %85 inguruk ondo edo oso ondo baloratzen dituzte bisitatu dituzten museoak.

## 4.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**78. irudia.** Pertsonak, museoek eta arte-zentroek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**79. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**80. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**81. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**82. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**83. irudia.** Pertsonak, museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohituraren arabera (%)




**84. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museoetara joan diren pertsonak)

**85. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (arte-galerietara eta erakusketetara joan direnak azken hiruhilekoan)

**86. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)




**Batezbestekoa: 1,9**
Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %18,1)

**Batezbestekoa: 2,2**
Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte-galerietara eta erakusketetara joan diren pertsonak, biztanleen %9,6)

**87. irudia.** Museoetara egindako bisitak, lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %18,1)

**88. irudia.** Museoetara egindako bisitak, tipologiaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %18,1)

**89. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, gogobetetze- mailaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %18,1)

# 5. MUSIKA



5.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

5.2. Datu estatistikoaren aukeraketa

# 5. MUSIKA

## 5.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Musikarako interesa

**EAEko herritarrek interes handia agertu dute musikarekiko.** 7,4 puntuko batezbestekoa jaso du (0 eta 10 arteko eskalan); beste jarduera kultural batzuekiko agertutako interesa baino askoz ere gehiago. Herritarren zati handi batek (%73,5) 7 eta 10 puntu arteko balorazioa egin du. Bestalde, oso gutxik adierazi dute interes falta (%8,3k 0 eta 4 arteko balorazioa egin dute). Musika klasikoko eta egungo musikako kontzertuetara joateko interesa ez da hain handia (5,1 puntu eta 6,0 puntu, hurrenez hurren).

**Adinaren arabera, kontzertu mota desberdinetako interesa agertu dute herritarrek.** Adina zenbat eta handiagoa izan, musika klasikoko kontzertuak orduan eta interesgarriagoak bihurtzen dira (gazteek 3,6 puntu eman dizkiete, eta adinekoek 5,7). Egungo musikari dagokionez, alderantzizko joera nabaritzen da: gazteek 8 puntu inguruko balorazioa egin dute eta adinekoek 4,2 ingurukoa.

### Musika entzuteko ohitura

**Jarduera kultural horrekiko adierazitako interesarekin bat, musikaren kontsumoa ere handia da:** EAEko 10 biztanletik 7k baino gehiagok (%73,3) musika kontsumitzeko ohitura dute: %54,9k egunero edo ia egunero entzuten dute eta %18,4k astero. Herritarren %20k aitortzen dute ez dutela musikarik kontsumitzen.

**Musika gehien entzuteko ohitura duten herritarrek, batez beste, 8,7 ordu igarotzen dituzte musika entzuten, asteko.** Halaber, talde handi batek 10 ordutik gorako kontsumoa egiten du (%21,3).

**Adina da musika-kontsumoaren adierazle nagusia; gazteek kontsumitzen dute, batez ere.** 15 eta 34 urte arteko 10 gaztetik 9k musika entzuteko ohitura dute, eta astean 10 ordu baino gehiago pasatzen dituzte musika entzuten. Adinarekin, kontsumoaren maila eta intentsitatea jaitsiz joaten dira, pixkanaka. 35 eta 54 urte arteko 10 herritarretik 7k kontsumitzen dute musika, eta, adin horretatik aurrera, are gutxiagok. Halaber, talde horiek ordu gutxiago pasatzen dituzte musika entzuten: asteko 7 eta 8 ordu artean.

**Adinarekin, aldatu egiten dira musika entzuteko euskarriak ere. Hala ere, or har, ekipamendu tradizionalak erabiltzen dira gehien:** %60,1ek musika-ekipoak erabiltzen dituzte eta %55ek irratia. Dena den, belaunaldien artean alde handia nabaritzen da erabilitako bitartekoei dagokienez. Teknologia berriak geroz eta gehiago ari dira zabaltzen, batez ere, gazteen artean. Hala, 24 urtetik beherakoen %57k MP3an edo antzeko erreproduzitzaileetan entzuten dute musika, eta %45,4k ordenagailu bidez. 25 eta 34 urte arteko herritarren kasuan, %33,4k eta %28,9k erabiltzen dituzte bitarteko horiek, hurrenez hurren. Adinak aurrera egin ahala, behera egiten du ehunekoak, eta adinekoek ez dituzte ia batere erabiltzen.

**Gustuko musika-estiloen artean, pop-rocka eta musika klasikoa dira nagusi; adinaren arabera aldatzen da batari ala besteari lehentasuna ematea.** Musika entzuteko ohitura duten herritarren %62,2k, batez ere, pop-rocka gustatzen zaiela diote, eta %31,9k musika klasikoa. Kasu horretan ere, alde nabariak daude kontsumitzaileen adinaren arabera: gazteek pop-rockaren alde egin dute nabarmen (34 urtetik beherakoen %80 inguruk aipatzen dute gustukoenen artean). Musika klasikoak, euskal musika tradizionalak eta kantagintza melodikoak garrantzia konparatibo handiagoa hartzen dute adinez nagusiagoen artean.

**Herritar elebidunek euskal musika asko entzuten dute; batez ere, helduek.** Grabatutako musika kontsumitzen duten 10 herritar elebidunetatik 8k diote musikari eta musika-talde euskaldunak entzuten dituztela. Batez ere, 45 eta 54 urte artekoek kontsumitzen dute musika mota hori (%83,6). Gazteek eta, haien ondoren, 64 urtetik gorakoek kontsumitzen dute gutxien euskal musika. Lurraldeka, bizkaitarrek euskal musika gehiago kontsumitzen dute (%80,3) gipuzkoarrek (%78,4) eta arabarrek (%75,4) baino.

## Musika erosteko ohitura

**EAEko 10 biztanletik 4k musika erosi dute azken urtean,** eta horietatik %30,3k azken 3 hilabeteetan. Hala eta guztiz ere, musika erosten ez duen biztanleriaren ehunekoa musika entzuten ez duenaren bikoitza da (%46,4k aitortzen du inoiz edo ia inoiz ez duela musika erosten. %20k, berriz, dio ez duela musikarik entzuten).

**Gizonezkoek eta elebidunek musika gehiago erosten dute, eta adinez nagusienek askoz ere gutxiago. Bestalde, unibertsitateko ikasketak dituztenek erosten dute gehien, alde handiarekin.** Hala, gizonezkoen %33k diote grabatutako musika erosi dutela azken 3 hilabeteetan (emakumezkoen kasuan, %27,7k diote hori). Herritar elebidun eta elebakarren arteko aldeak ere oso antzekoak dira (%34,2 eta %28,7, hurrenez hurren). Adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera nabaritzen dira

alderik handienak: 64 urtetik gorakoen %8,1ek bakarrik erosi dute musika, eta 54 urtetik beherakoen %38-40 inguruk. Azkenik, unibertsitateko ikasketak dituzten herritarren %41,8k erosten dute musika eta ikasketarik ez dutenen %7,2k.

**Neurri handi batean, musikaren erosketak bat datoz lehen aipatutako gustuekin:** musika erosteko ohitura duten pertsonen %57,6k pop-rock musika erosten dute, %17,3k musika klasikoa (gogoratu %33k aipatzen dutela gustuko musika-estiloen artean) eta %15,2k euskal musika tradizionala.

**Jendeak, batez ere, saltoki handietan erosten du musika:** %62,6 joaten dira horrelako saltokietara. %45,1ek, berriz, denda espezializatuetan erosten dute musika. Bestalde, Araban gora egin du saltoki handietan erosteko ohiturak (10etik 7), denda espezializatuen kaltetan (%36,5). Gipuzkoan, berriz, alderantzizko joera nabaritzen da. Hala ere, saltoki handietan eta denda espezializatuetan egindako erosketen arteko aldeak asko murriztu dira.

**Herritar elebidunek euskal musika asko erosten dute.** CDetan eta bestelako euskarrietan musika erosten duten herritar elebidunen %62,5ek euskal musika erosten dute.

## Kontzertuetara joateko ohitura

**EAEko herritarren %37,7 zuzeneko musika-kontzertuetara joan dira azken urtean** (%16,6 azken hiruhilekoan eta gainerako %21,1 azken urtean), **eta, 2 kontzertutara joan dira, batez beste.** Azpimarratzekoa da herritarren %43,5 ez direla zuzeneko musika-ikuskizunetara joaten.

**Adinak aurrera egin ahala, gero eta gutxiago joaten dira.** Azken hiruhilekoan arreta jarrita, gazteak hiru aldiz gehiago joan dira kontzertuetara helduak baino (%33,6 eta %10,6, hurrenez hurren). Eta musika erosteko ohiturarekin gertatzen den bezala, gizonezkoak, elebidunak eta unibertsitateko ikasketak dituztenak batezbestekoa baino goraxeago daude.

**Bestalde, herritarrak** —batez ere, gazteak— **askoz ere gehiago joaten dira pop-rock kontzertuetara beste musika-estiloetako kontzertuetara baino** (%50,8 azken hiruhilekoan). Halaber, azpimarratu behar da, batez ere, adinez nagusienak joaten direla musika klasikoko kontzertuetara (talde horretako %67,5 joan dira horrelako kontzertuetara azken hiruhilekoan). Talde horretan, askoz ere txikiagoa da beste kontzertu mota batzuetara joan direnen ehunekoa. Bestalde, herritarren %14,3 inguru joan dira euskal musika tradizionaleko kontzertuetara. Kasu horretan, ez dago alde handirik adinaren ikuspegitik.

**Batez ere, arabarrak mugitzen dira leku batetik bestera, musika-kontzertuetara joateko:** azken hiruhilekoan kontzerturen batera joan diren Arabako biztanleen %54 baino gehixeago probintziatik kanpora joan dira. Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %30 inguru joan dira probintziatik kanpora.

**Denbora falta** (%43,5) **eta kostu ekonomikoa** (%41,9) **dira zuzeneko musika-kontzertuetara gehiago joatea oztopatzen duten faktore nagusiak.** Gutxiagok aipatzen dituzte eskaintza falta (%24,6) eta eskaintza desegokia (%15,2) arrazoi modura. Azpimarratzekoa da, denbora faltak antzeko eragina duela lurralde guztietan. Kostu ekonomikoa, berriz, gehiago aipatzen dute bizkaitarrek (%45). Arabarren %25,1ek, berriz, eskaintza desegokia aipatzen dute.

**Herritar elebidunak asko joaten dira euskal musikako kontzertuetara.** Azken hiruhilekoan kontzerturen batera joan diren herritar elebidunen %64,6 euskal musikako kontzertuetara joan dira.

## 5.2. DATU ESTATISTIKOAREN AUKERAKETA

**90. irudia.** Pertsonak, musikak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**91. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**92. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)



**93. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**94. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**95. irudia.** Pertsonak, musika entzuteko ohituraren arabera (%)



**96. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak)

**97. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**98. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**99. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**100. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**101. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**102. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**103. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**104. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %73,3)

**105. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**106. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**107. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**108. irudia.** Pertsonak, musika erosteko ohituren arabera (%)




**109. irudia.** Musika erosteko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika erosteko ohitura duten pertsonak (azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak)

**110. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %48,9

**111. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %48,9

**112. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %48,9

**113. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %48,9

**114. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3

**115. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3

**116. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3

**117. irudia.** Pertsonak, musika-kontzertuetara joateko ohituren arabera (%)




**118. irudia.** Musika-kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan musika-kontzertu batera joan diren pertsonak)

**119. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %16,6)

**120. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %16,6)

**121. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, kontzertu horietako musika-motaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %16,6)

**122. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, musika entzutera joan ohi diren lekuaren eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %16,6)

**123. irudia.** Pertsonak, kontzertu gehiagotara ez joateko arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %79,8

**124. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,4

**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,4

**126. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,4

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK



6.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

6.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK

## 6.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Telebista

**Oro har, EAEko herritar guztiek ikusten dute telebista.** 10 herritarretik 9k telebista ikusteko ohitura dute, eta ez dago alde nabarmenik taldeen artean (adina, sexua, hizkuntza-gaitasuna eta abarren arabera).

**Ohiko ikusleek telebista asko ikusten dute: 2,4 ordu eguneko, batez beste,** lan-egunetan zein asteburu eta jai-egunetan, hau da, astean 16,8 ordu, batez beste.

**Talde hauek denbora gehixeago pasatzen dute telebista ikusten: adinekoak** (2,9 eta 3,2 ordu artean egunean, asteguna edo asteburua izatearen arabera)**, emakumeak** (eguneko 2,5 ordu, batez beste) **eta elebakarrak** (2,5).

**Albistegiak dira gehien ikusten diren telebista-programak:** ikusleen hiru laurdenek baino gehiagok (%77) gustukoenen artean aipatzen dituzte. Horien ondoren daude filmak (%48,5) eta telesailak (%42,1). Herritarren %3,4k bakarrik aipatzen dituzte programa kulturalak gustukoenen artean. **Dena den, alde handiak nabaritzen dira generoaren eta adinaren arabera.** Emakumeek telesailak, elkarrizketa-programak, lehiaketak eta bihotzeko programak dituzte gustuko; gizonek, berriz, nahiago dituzte kirolak. Adinari dagokionez, albistegiek garrantzi handia dute adin-talde guztietan, baina, batez ere, adinekoen artean. Gazteek nahiago dituzte telesailak.

### Irratia

**Herritarren hiru laurdenek baino gehiagok irratia entzuteko ohitura dute, baina kontsumo-mailak ez dira telebistarenak adinakoak.** Aztertutako talde guztiek antzeko kontsumo-mailak adierazi dituzte (%70etik gora), gazteek izan ezik. Gazteek ez dute irratia entzuteko hainbesteko ohiturarik (%64,4).

**Hala eta guztiz ere, ohiko entzuleek telebista-ikusleen antzeko ordu kopurua pasatzen dute irratia entzuten:** astean 16 ordu, batez beste. Astegunetako kontsumoa askoz ere handiagoa da (2,5 ordu, batez beste; telebista baino gehiago) asteburuetakoa edo jai-egunetakoa baino (1,8 ordu larunbatetan eta 1,7 ordu igande eta jai-egunetan).

**Irratiko kontsumo-eredua ere telebistaren antzekoa da:** adinekoek (19,8 ordu), emakumeek (17,1 ordu asteko) eta elebakarrek (16,2 ordu) kontsumo-maila handiagoak dituzte, oro har.

**Kasu horretan ere, albistegiak entzuten dira gehien** (72,6k aipatzen ditu gustukoenen artean), eta horien atzetik daude —oso gertu— musika-programak (60,8). Adinekoek askoz ere gehiago entzuten dituzte albisteak eta gaurkotasuneko erreportajeak. Gazteek, berriz, nahiago dituzte musika-programak. Programa kulturalek interes gutxi pizten dute, kasu honetan ere (7,7k bakarrik aipatzen dituzte horrelako programak gustukoenen artean).

## Euskarazko telebista eta irratia

**Telebistako 10 ikusle elebidunetik 7k baino gehixeagok euskarazko telebista ikusten dute, neurri handiagoan edo txikiagoan.** Kontsumo hori pixka bat handiagoa da astegunetan (telebista-programen %32,4 ikusten dituzte euskaraz), eta asteburuetan eta jai-egunetan %29-30 ingurukoa.

**Irratia euskaraz entzuten duten herritar elebidunen kontsumoa polarizatuagoa dago.** Batetik, badago talde handi bat (%35,8) astegunetan irratia entzuten duena, baina euskarazko programak aukeratzen ez dituena. Asteburuetan, %50era iristen da ehuneko hori. Bestalde, irratia euskaraz bakarrik entzuten dutenen ehunekoa azpimarratu behar da: %19,2 astegunetan eta %13 inguru asteburuetan. Ondorioz, **euskarazko programen kontsumoa telebistakoaren antzekoa edo handiagoa da astegunetan.**

## 6.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**127. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**128. irudia.**Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**129. irudia.**Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**130. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**131. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**132. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**133. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3

**134. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**135. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**136. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**137. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**138. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**139. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**140. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9

**141. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko telebistak ikusten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %91,4

**142. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko irratiak entzuten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %76,1

# 7. ZINEMA



7.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

7.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 7. ZINEMA

## 7.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Zinemarako interesa

**Zinemak interes handia pizten du EAEko herritarren artean.** Herritarren erdiek baino gehiagok interes handia edo oso handia azaltzen dute zinemarako (%35,5ek 7-8 puntu eman dizkiote, eta %18,2k 9-10 puntu). Bestalde, gutxiengoak adierazi du jarduera kultural horrekiko interesik eza (%13,9k 0-2 puntu eman dizkiote).

**Emakumeek, hezkuntza-maila handiena dutenek eta gazteek adierazi dute interesik handiena.** Zehazki, emakumeek gizonezkoek baino balorazio hobea egin dute (6,3 puntu eman dizkiote, gizonezkoek berriz, 5,9 puntu). Unibertsitateko ikasketak dituztenek adierazi dituzte interes-maila handienak (7,1). Adin-tarteak aztertuta, **adinean zenbat eta aurrerago, orduan eta interes txikiagoa agertu da zinemarekiko.** Gazteek azaldutako interes-maila ia 3 puntu handiagoa da adinekoek azaldutakoa baino (15 eta 24 urteko gazteek 7,4 puntu eman dizkiote eta 64 urtetik gorakoek 4,6).

### Zinemara joateko ohitura

**EAEko 10 biztanletik 4k zinema-aretoetara joateko ohitura dute** (%26 zinemara joan dira azken hilabetean, eta gainerako %14 azken hiruhilekoan). Hala eta guztiz ere, herritarren talde handi batek ez du zinemara joateko ohiturarik (%19,1 ez dira joan azken urtean eta %26,8 ez dira inoiz edo ia inoiz joaten).

**Agertutako interesarekin bat, gazteak asko joaten dira zinemara:** 15 eta 24 urte arteko gazteen ia hiru laurden zinemara joan dira azken hiruhilekoan. Ehuneko hori %12 ingurura jaisten da 64 urtetik gorako herritarren artean. Halaber, prestakuntza-maila handiena duten herritarrak askoz ere gehiago joaten dira (unibertsitateko ikasketak dituzten 10 herritarretik ia 6 eta lehen-mailako ikasketak amaitu dituztenen %10,7 bakarrik). Dena den, **emakumeek interes handiagoa azaldu arren, gizonezkoak gehiago joaten dira zinemara**. Emakumeen %37,9 bakarrik joan dira zinemara azken hiruhilekoan, eta gizonezkoen %42,2.

Bertaratzea eskatzen duten beste jarduera batzuekin gertatzen den bezala, **udalerria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da zinemara joateko ohitura** ere (10.000 biztanle baino gutxiagoko udaletako herritarren %35,6k dute ohitura hori, eta hiriburuetakoen %44,6k).

**Zinemara joateko ohitura dutenak 3,2 aldiz joaten dira hiruhileko bakoitzean.** Oro har, pertsona bakoitza 1 edo 2 aldiz joaten da zinemara hiruhileko bakoitzeko (10 pertsonatik 6). Hala ere, badago talde handi bat (gainerako %40a) 3 aldiz baino gehiagotan joaten dena.

**Herritarren %57,5ek diote gehiagotan joan nahiko luketela.** Hori egitea galarazten dieten faktoreen artean aipatzen dituzte denbora falta (%49,4) eta kostu ekonomikoa (%42,5). Lurraldeka, Gipuzkoan gehiago aipatzen dute denbora falta zinemara ez joateko arrazoi gisa. Araban eta Bizkaian, berriz, gehiago aipatzen dute kostu ekonomikoa.

## Zinema-kontsumoa beste formatu batzuetan

**Zinema asko kontsumitzen da beste formatu batzuetan (bideoa, DVDa, VHSa... ):** 10 pertsonatik 3k diote astero kontsumitzen dutela. Antzeko ehunekoak (%32,6) kontsumo neurritsuagoa egiten du, eta herritarren %37k ez dituzte horrelako formatuak erabiltzen inoiz edo ia inoiz.

**Arlo horretan, belaunaldien arteko jauzi handia nabaritzen da; gazteek gehiago kontsumitzen dute.** Adinean aurrera egin ahala, kontsumoak behera egiten du: gazteen %85 inguruk kontsumitzen dituzte formatu horiek eta adinekoen %27,9k. Gizonezkoen eta emakumezkoen kontsumoaren artean ere, aldeak daude (%67,4 eta %58,8, hurrenez hurren).

**Bestalde, adinaren arabera, modu desberdinean eskuratzen dira bideoak.** Bideoen kontsumoari dagokionez, gehienek bideoklubetan alokatzen dituzte. Hala ere, konparatiboki, gazteek deskarga asko egiten dituzte Internetetik. Adinekoek, berriz, gehiago erabiltzen dituzte lagunek eta senideek utzita eta erosita.

## 7.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**143. irudia.** Pertsonak, zinemak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**144. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**145. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**146. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**147. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**148. irudia.** Pertsonak, zinemara joateko ohituraren arabera (%)




**149. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak)

**150. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, joandako emanaldien arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %40)

**151. irudia.** Pertsonak, zinemara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %57,5

**152. irudia.** Pertsonak, zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko ohituren arabera (%)



**153. irudia.** Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago)

**154. irudia.** Pertsonak, bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago), biztanleen %63

# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA



8.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

8.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA

## 8.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Arte eszenikoetarako interesa

**Arte eszenikoen artean, batez ere, antzerkiak erakartzen ditu EAEko herritarrak** (5,3 puntu eman dizkiote 0 eta 10 arteko eskalan). Lirikak eta dantzak, ostera, balorazio baxuagoak dituzte (3,6 eta 3,9 puntu, hurrenez hurren). Halaber, herritarren artean desberdintasunak daude arte eszenikoekiko interesaren arabera: balorazio ertaina eman dieten pertsonen ehunekoak antzekoak izan arren (%20-22), antzerkiaren kasuan, %42k interes handia edo oso handia adierazi dute. Lirikaren eta dantzaren kasuan, ordea, kontrako interesa agertu dute: %60,5ek eta %54,1ek interes gutxi edo oso gutxi adierazi dute, hurrenez hurren.

### Arte eszenikoetara joateko ohitura

**Batez ere, antzerki-ikuskizunetara joaten dira herritarrak: %20 inguru azken urtean** (%9,2 azken hiruhilekoan). Dantza- eta lirika-ikuskizunetara, ordea, jende gutxiago joan da azken urtean (%9,3 eta %7,6, hurrenez hurren). Bestalde, herritarren %80 inguruk aitortzen dute ez direla joaten (inoiz edo ia inoiz) dantza eta lirika ikustera. Antzerkiaren kasuan, %53,8k diote hori.

**Dena den, EAEko herritarrak gehiago joaten dira aipatutako ikuskizun-mota guztietara Estatukoak[1] baino.** Datu horien artean, lirikako ikuskizunetara joaten diren herritarren ehunekoa azpimarratu behar da, Estatukoa baino 7,3 puntu altuagoa baita (%20,6 EAEn eta %13,3 Estatuan). Dantzaren kasuan, 3,7 puntuko aldea dago, eta antzerkiaren kasuan, 1,4 puntukoa.

**155. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoetarako bertaratzearen arabera. EAEren eta Espainiaren alderaketa (%)




**Iturriak:** Eusko Jaurlaritzaren *Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta –kontsumoari buruzko inkesta,* 2007-2008 eta Espainiako Kultura Ministerioaren *Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkestaren* arabera egina

[1] Ikuskizun eszenikoetara joan diren biztanleak, inoiz edo ia inoiz joan ez direla adierazi dutenak izan ezik.

**Dantza-ikuskizunetara joaten direnak maiztasun handiagoz joaten dira:** oro har, ikuskizun eszenikoetara joaten diren herritarrak hiru hilean behin joaten dira, batez beste (antzerkia, dantza eta lirika ikustera joaten direnen %60-70 inguru). Hala ere, dantzak jarraitzaile gehiago ditu, 4 aldiz baino gehiagotan joan direnak kontuan hartuta (7,3); 2,1 ikuskizun ikusi dituzte hiruhileko bakoitzean. Antzerkiaren eta lirikaren jarraitzaileak, berriz, 1,7 ikuskizunetara joan dira hiruhileko bakoitzeko.

**Bestalde, emakume gehixeago joaten dira ikuskizun eszenikoetara:** emakumezkoen %10,9k dute antzerki-ikuskizunetara joateko ohitura, eta gizonezkoen %7,3k. Dantza- eta lirika-ikuskizunei dagokienez, emakumezkoen %4,5 joaten dira ohikotasunez, eta, gizonezkoen kasuan, %2,5 inguru bakarrik. Adina kontuan hartuta, desberdintasun batzuk daude ikuskizun eszeniko motaren arabera: 25 eta 44 urte arteko herritarrak maiztasun gehiagorekin joaten dira antzerki-ikuskizunetara. Adinekoak (55 urtetik gora), berriz, gehiagotan joaten dira lirika-ikuskizunetara. Ikasketa-mailari dagokionez, unibertsitateko ikasketak dituztenek ohitura handiagoa dute horrelako ikuskizunetara joateko.

**Konparatiboki, Arabako herritarrak joaten dira gehien antzerki- eta lirika-ikuskizunetara. Gipuzkoarrak** gutxiago joaten dira horrelako ikuskizunetara, baina, **konparatiboki, gehiago joaten dira dantza-ikuskizunetara.** Hiriburuetan, jende gehiago joaten da horrelako ikuskizunetara udalerri txikiagoetan baino.

**Herritarren erdiak (%50,9) dio ikuskizun eszeniko gehiago ikustea gustatuko litzaiokeela.** Hori galarazten dieten hiru arrazoi aipatzen dituzte, batez ere: arabarrek denbora falta aipatu dute gehienbat (%53), bizkaitarrek kostu ekonomikoa azpimarratu dute (%40,3) eta Gipuzkoan garrantzi gehiago eman diote eskaintzaren eskasiari (%27,6).

**Azken urtean antzerkira joan diren herritar elebidunen %46,8k baino gehiagok euskarazko ikuskizunen bat ikusi dute.** Lurraldeka, Gipuzkoako herritarrak maiztasun handiagoz joaten dira euskarazko antzerki-ikuskizunetara (%52,8).

## Bertsolaritza[1]

**Antzerki-ikuskizunei buruz adierazitakoaren antzeko interesa dute herritar elebidunek bertsolaritzan (5,2 puntu).** Herritar elebidunen %40 inguruk interes handia edo oso handia adierazi dute hain bertakoa dugun jarduera horrekiko. Adinean aurrera egin ahala, gero eta interes handiagoa agertu dute herritarrek. Dena den, zaletuen belaunaldi-aldaketa gertatzen ari dela nabaritzen da,

[1] Bertsolaritzari buruzko datuak biztanleria elebidunari dagozkionak dira, gainerako diziplina guztietan biztanleria osoa hartu da kontutan.

gazteen eta helduen artean puntu eskas bateko aldea baitago. Datuen arabera, ikasketa-mailak ez du baldintzatzen bertsolaritzarekiko interesa, beste jarduera kultural batzuetan gertatzen den bezala, eta kasu guztietan 5 puntu inguruko interesa adierazi dute, batez beste. Hori da bertsolaritzaren berezitasunetako bat.

**Herritar elebidunen %18,1 zuzeneko bertso-saio batean izan dira azken urtean,** eta %8,7 azken hiruhilekoan. Aitzitik, 10 herritar elebidunetik 6k diote ez direla joaten horrelako ikuskizunetara inoiz edo ia inoiz. **Hala eta guztiz ere, joateko ohitura dutenek zaletasuna agertu dute, batez beste 2,3 aldiz joan baitira azken hiruhilekoan.**

**Bertsozaleen profilak zenbait berezitasun ditu: gizonezkoak gehiago joaten dira** (bertsozaleen %9,7 gizonezkoak dira eta %7,8 emakumezkoak) **eta gazteak ere bai** (15 eta 24 urte arteko gazteen %12,9 bertsozaleak dira). Bertsolaritzak zale gehiago ditu Gipuzkoan, eta azpimarratzekoa da herri txikienetako (10.000 biztanletik beherakoetako) zaletasuna.

## 8.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**156. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**157. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




**158. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**159. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




EAE

**160. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**161. irudia.** Pertsonak, antzerkia ikustera joateko ohituraren arabera (%)




**162. irudia.** Pertsonak, lirikara joateko ohituraren arabera (%)




**163. irudia.** Pertsonak, dantza-ikuskizunetara joateko ohituraren arabera (%)




**164. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



**165. irudia.** Antzerkia ikustera joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerkira joan diren pertsonak)

**166. irudia.** Lirikara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan lirikara joan diren pertsonak)

**167. irudia.** Dantza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsonak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan dantza-emanaldietara joan diren pertsonak)

**168. irudia.** Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, Lurralde Historikoaren, sexuaren, adin-taldearen, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan bertsolaritza-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak)

**169. irudia.** Ikuskizun eszenikoetara joateko ohitura duten pertsonak, emanaldi-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte eszenikoen ikuskizunetara joan diren pertsonak: antzerkia %9,2, lirika %3,6, dantza %3,6 eta bertsolaritza %8,7)

**170. irudia.** Pertsonak, ikuskizun eszenikoetara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta Lurralde Historikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Arte eszenikoen ikuskizunetara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %50,9

**171. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

**172. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

**173. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,5

# 9. METODOLOGIA



# 9. METODOLOGIA

Eragiketa estatistiko honen bidez, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko 15 urtetik gorako pertsonen ohitura, jarduera eta kontsumo kultural orokorrak ezagutu nahi dira, eta arreta berezia eman nahi zaio euskal kulturari. Hala, Euskal Herri osoko biztanleen erretratu fidela egin nahi da jarduera kultural jakin batzuekiko interesari, praktika horien maiztasun eta intentsitateari eta eguneroko kontsumo kulturalaren ezaugarriei dagokienez.

Inkestaren emaitzak bateragarriak izan daitezke Eurostatek edo Espainiako Kultura Ministerioak sustatutako ikerketekin, informazio-helburu eta adierazle berak erabili dira eta; hala ere, emaitzak alderatzean, kontuan hartu behar da inkestak ez direla une eta garai berean egin.

## Kontzeptu orokorrak

Oro har, oinarrizko hiru kontzepturi buruzko informazioa eskatu da, eta, ondoren, zeharka erabili da informazio hori aztertutako azpiatal bakoitzean:

**Interes-maila:** galdetutako pertsonak jarduera kultural jakin batzuetarako duen zaletasuna jasotzen du. Informazioa ahalik eta zehatzena izateko, jarduera bakoitzari puntuazio bat emateko eskatu da, 0 eta 10 arteko eskalan.

**Ohitura:** aztertutako pertsonek jarduera kultural batzuen aurrean duten ohiko portaeraren adierazle orokorra da.

**Jarduera:** maiztasunari eta intentsitateari egiten dio erreferentzia —zenbat aldiz joan diren edo zenbat denbora pasatu duten jarduera jakin bat egiten— epealdi jakin baten barruan (azken hiruhilekoa, azken urtea... ).

### Fitxa teknikoa

**EREMU GEOGRAFIKOA**
Euskal Autonomia Erkidegoa.

**INFORMAZIO-BILKETA**
Telefono bidezko elkarrizketa gaztelaniaz eta euskaraz, galdera-sorta egituratu bidez.

**UNIBERTSOA**
Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urtetik gorako herritarrak.

**LAGINAREN NEURRIA**
3.986 elkarrizketa lurraldearen arabera banatuak: 922 Araban, 1.763 Bizkaian eta 1.301 Gipuzkoan.

**LAGINAREN ERRORE-MARJINA**
Laginaren errore-marjina ±%1,6koa da, %95eko konfiantza-mailarekin eta gehienezko indeterminazioaren suposizioarekin (p=q=%50).

**LAGINKETA-PROZEDURA**
Etapa anitzeko laginketa bi etapetan: lehen unitateak (etxebizitzak), telefono-zenbakien ausazko hautaketa bidez. Bigarren unitateak (norbanakoak), sexuaren, adinaren, euskararen ezagutzaren, probintziaren eta udalerriaren tamainaren arabera.

**INKESTA EGIN ZEN DATA**
2007ko abenduaren 18aren eta 2008ko otsailaren 8aren artean.